

Josu Barandika: "Bilboko arazorik nagusiena marjinazioa da "

1987ko maiatzaren 10

Josu Barandika, HBren Bilborako alkategaiari elkarrizketa

Josu Barandika: "Bilboko arazorik nagusiena marjinazioa da "

1939. urtean jaio zen Bermeon. Hamaika urterekin seminarioan sartu eta 1964.ean ikasketak bukatutakoan Orozkon jarri zen parroko bezala. 1968. urtean, arrazoi politikoak zirela eta bidali ezin zuen handik Gupide gotzaiak. 1969an, martxoan Frantzia atzerriratu beharra izan zuen. Parisen, Vincennes unibertsitatean soziologia ikasketak burutu zituen 1973. urtean. Handik urte betera itzuli zen Urbanismo Informazio Bulegoan jarri zelarik lanean. "Egin" egunkariaren sorreran parte hartu zuen eta Fundatzaile Kontseiluko lehendakaria da. Herri Batasunaren aldetik juntero ere izan zen 79tik 83ra. 1985. urtean sartu zen Bilboko Udaletxean teniente alkalde bezala Tasio Erkiziaren ordean. Josu Barandika da HBren alkategaia Bilborako, hurrengo hauteskundeetan.

GALDERA: Bilboko Udalak nola daramatza urbanismoko kontuak?

ERANTZUNA: Bilboko Udalak nahiko zehazturik daude arloak, eta arlo bakoitzaren buru kontzejal bat dago. Alkate-ordeak arlo bakoitzaren arduradunak dira. Urbanismoa daramana, noski, PNVkoa da. Batzorderik ez dago. Lehen baziren komisioak, orain gaiak plenoan ikutzen dira.

GALDERA: Gorordok, PNVren alkategaiak, zioen 2000. urteko hiria egin behar zela Bilbo. Nola dago ordea zerbitzu aldetik gaur egun?

ERANTZUNA: Bilbok nahiko zerbitzu gutxi dauka, eta dauzkanak beste zenbait enpresa pribaturen mende daude. Garraioak esaterako. Hemen gertatzen da zerbitzu asko daudela egin beharrekoak eta ez direla egiten. Kultur arloan esaterako, apenas dago ezer. Antzerkian, erakusketa aretoak... Ez dago dinamika bat herria bultzatzeko eta dagoeneko martxan dauden taldeak laguntzeko, lokalak eskaintzeko eta potentziatzeko herriak egin nahi dituen gauzak. Arlo gehienetatik begiratuta ikusten da ez dagoela plangintzarik.

Auzo-Mugimenduaren Kondarrak

GALDERA: Duela urte batzuk indar handia izan zuen Bilbon, beste toki askotan bezala, Auzo Mugimenduak. Gelditzen al da horretatik zerbitzu?

ERANTZUNA: Bai, baina indar barik.

GALDERA: Pizteko modurik? Bizituko al da?

ERANTZUNA: Nik uste dut hori mugitzeko moduak badaudela. Baina hori egiteko ez da pentsatu behar Udaletxea alderdietatik bakarrik egin behar denik baizik eta herri mugimendu bat sortuaz. Auzo Mugimendua indar gabe gelditu baldin bada izan da, alde batetik lehen horretan aritzen zen jende asko alderdietara dedikatu delako, eta bestetik, eta hau oso garrantzitsua izan da; Udaletxeari dagokionez, PNVk, Castañaresen garaian, ate guztiak itxi egin zizkielako Auzo Elkarteei.

GALDERA: Auzo Elkarteekin hori. Ez al dira ordea, alderdi gehienetan, zinegotziak nahiko «deskolgatuta» gelditu Udaletxean? Nola ikusi duzu hori Herri Batasunako zinegotzi bezala?

ERANTZUNA: Bai, hori egia izan daiteke eta uste dut benetan jazo dela. Bilbon ordea, zortzi urte hauek ikusirik, uste dut nahiko lotuta egon direla Bilboko auzoekin eta auzoetako mugimenduekin. Azken sasoi honetan izango ginen gutxien.

GALDERA: Ze espektatiba daukazue Bilboko Udalari begira?

ERANTZUNA: Azken hauteskundeetan arauera lehenengo izango da PNV, gero PSOE, gero HB, gero EE, EA eta eskuin espainola.

Diputazioarekiko Konfliktuak

GALDERA: Bilbo bezalako hiri baten Udalak diru-mugimendu handia behar du derrigorrez. Diputazioa ere hortxe dago. Ze konfliktu sortzen dira bata eta bestearen artean konpetentziak direla eta?

ERANTZUNA: Askok. Lehenengoa dirua da. Bilbo da Diputazioari diru gehien aportatzen dion Udalak. Eta ez dauka posibilitaterik Diputazioarekin batera hurrengo urteko presupostuak banatzeko. Konpetentzian sartuaz, askotan gertatzen da Diputazioak edo Gasteizko Gobernuak, bakoitzak bere aldetik bakoitzak bere proiektua egiten duela, jakina, Udaletxeko partidu berekoak dira, baina proiektuak ez dira Udaletxean ausartzen, eta askotan gertatzen da bakoitza bere aldetik dabilela. Udaletxeak ez dauka hiri honen eredurik, helbururik, eta orduan Gasteizko gobernuak, Diputazioa, Renfe, Puerto Autonomoa eta hemen dauden erakunde publiko guztiak bakoitza beren aldetik dabil.

Konpetentzia arazoetan, beste bat aipagarriena asistentzia mailan, politika sozial edo sanitaria delakoan ematen da. Konpetentziak ez daude ondo markatuta. Gobernuak ditu batzuk, Diputazioak besteak, Udaletxeak besteak... eta sarri askotan ez da garbi jakiten zein den bakoitzaren eremua.

Heziketa mailan ere badira konpetentzia problemak.

Marjinazioa, Langabezia, Diru-Eza

GALDERA: Bilbo hiriko arazorik nagusienak zeintzuk dira zure ustez?

ERANTZUNA: Hemengo arazorik handiena langabezia da. Diru eza eta marjinazioa dira arazorik handienak. Marjinazio arazo hau emigrazioaren artean ematen da bereziki. Nahiz eta oraingo gazteak hemen jaiotakoak izan, beraien situazioa beren gurasoengandik datorren diruaren mende dago. Langabezia egonik, dirurik ez edukirik beste modu batean bizitzeko, esan daiteke «beste mundu» batean bizi direla. Gaur egun Bilbon denok daukagu hiriaz gozatzeko eskubidea, «el derecho a la ciudad», «el derecho al espacio», baina eskubide horiek batzuk bakarrik erabili ahal dituzte. Primerako hiritarrek bakarrik. Besteek nahiko lan deukate, etxea, errota, jatekoa etabarrekin. Ez dute beste posibilitaterik.

GALDERA: Ze alternatiba dauka Herri Batasunak honen aurrean?

ERANTZUNA: Udaletxetik ez dago bide handirik, baina sortu daitezke bide batzuk. Eta ez bakarrik asistentzi bideak, baizik eta produzio bideak.

Behar bada gutxi, baina zerbitzu. Esaterako, etxebizitzak lor daitezke gaur egun langabezia dagoen jendearentzat. Alkilerrean eta oso merke egin daitezke hori etxe publikoen bitartez. Udaletxeak hori badu konpetentzia. Bilboko Udalak orain arte ez du bete hori. Bilbon bada "Institución de Viviendas Municipales" izenekoak, baina 1963. urtean egin zuten azken etxea. Harrez gero ez da etxe bakar bat egin. Orainxe Gobernuak egin ditu etxe batzuk, baina Udalak ez parterik hartu horretan. Udalak egin dezake hori eta egin beharko luke, jendea gero etxe merkeak eskaintzeko.

Uholdeetatik Atera Etagero...

Produzio mailan Udal batek badu posibilitatea plangintza batzuk sortzeko eta industri arloak edo soloak prestatzeko prezio komeniente batzutan.

Beste bat litzateke enplegu bulego bat sortzea, enplegua promozionatzea. Horrezaz-ere ez da ezer egin.

GALDERA: Ze balorazio egingo zenute PNVk Bilboko Udalean azken lau urteotan egindako gestioaz?

ERANTZUNA: Azken lau urteotan PNVk, Korporazioak azken finean, gauza asko egin dituela uste dut. Eta gauza oso positiboak gainera. Positiboak, esan nahi dut, hemen uholdeak ikaragarriak izan ziren eta Udaletxea ere nahiko bere puntuan egon zen. Azpimarratu behar da dena dela, herriaren jokabidea zein ona izan zen orduan. Indar hori ez da gaur egun ikusten. Zergatik? Sarri askotan Udaletxeak berak debekatu egiten duela sarrera Udaletxera. Ez du uzten mugimendu hori, indar hori Udaletxean sartzen. Eta indar horiek potentziatu egin beharko lirake. Guk esaten dugu lortu egin behar dela auzuneen arteko kontseilu bat. Organo estable bat. Baina zure galderari erantzunez, nik uste dut efikazak izan direla PNVko arduradunak. Bai zebitu teknikoetan, bai urbanismoan eta zerbitzu hezkuntzan.

Helburuak Markatu Beharra

Baina guk gaur planteatzen duguna da, zein da gaur Bilboko arazoa? Kaleak berritu egin behar dira, ekipamenduak sortu behar dira auzoetan...

gauzak egin behar dira. Baina guk ikusten dugunez marjinazioa da problema nagusiena. Langabeziaren arazoa; krisiaren ondorioa.

GALDERA: Ze langabezi neurri ematen da Bilbon?

ERANTZUNA: Guk uste dugu %27koa dela. Horretaz aparte badaukagu beste datu bat benetan izutzeko modukoa dena: %40,9 txirotasunean bizi dira. Datu hori ikusi dudanean harri eginda gelditu naiz. Modu asko dago txirotasuna neurtzeko. Estudio honetan pobreza de mantenimiento eta de

acumulación bereizten dira. Badaude diferentziak baina azken finean esan nahi du ez heltzea jantziak edukitzeko, edo jan dieta minimo bat egiteko... Umbral de pobreza horretatik behera daude %40,9 horiek.

GALDERA: Hainbestekoa bada txirotasun neurria, nola esplikatzen da gero PNV bat izatea boto gehienak ateratzen dituen?

ERANTZUNA- Halaz eta guztiz ere hemen desinformazio ikaragarritzkoa dago, eta jendeak, nahiz eta txirotasun ikaragarritzko batean bizi, edo alde egiten du, paso, abstentzioa dela edo pasotismoa, pasotismo gehiago dago nagusien artean gazteen artean baino, edo trankilidade baten bila aritzen da beti; nork lortzen du hori? Botereak. PNVk eta PSOEk. Ez dut uste hor analisi handirik egin behar denik. Jendeak beti botoa ematen dio ziurtasuna eskaintzen dionari. Nahiz eta situazio txarrean egon boto-emalea. .

Egoera soziologiko hauek, giro honek, sortzen dituzte halako egoera indibidual batzuk. Jokabideak beti dira indibiduoaren alderditik. Ez kolektiboak. Ez sozialak. Harremanak sortzen dira erakunde eta indibiduoaren artean.

GALDERA: Hor bada edizio bat, Alondiga, askotan aipatu izan dena kultur-etxe bezala prestatuko dela. Zer dago horretaz?

ERANTZUNA: Nik ezagutzen dudanetik hor egon den mugida, hasiera batean auzoan bertan nahi zuten kultur ekintzetarako erabili etxea. Konkurtso bat ere egin zuten auzoan bertan horretarako baina hor gelditu zen. Beste ideia batzuk ere sortu dira gero. Eta azkenean aparkalekua. Guk kritikatu egin dugu. Baina hor, beste horrek bezala, Pompidou zentru bat egin nahi izatea hor txorakeria bat da. Pompidou zentrua beste gauza bat da. Bilbon gaur egun auzo elkarteek ez daukate tokirik beraiek elkartzeko ere. Ez gaitzezen hasi tontakeriak esaten.

GALDERA: Garraioaren kontua da Bilboko beste arazo nagusienetako bat. Metroa...

ERANTZUNA: Hor dago.

Garraioaren Arazoa

GALDERA: Egingo al da lau urte hauetan?

ERANTZUNA: Fase bat. San Inazio eta Parte Zaharra bitartekoa laister uste dut hasiko dela. Dena dela zein da hor guk esaten duguna? Bilbo plangintzarik gabe dago. Plangintza bat edukitzea ez da plano batzuk edukitzea. Jakin behar dugu ze modelu nahi dugun. Nolako Bilbo nahi dugun. Irudi bat edukiko du agian norbaitek, baina hori ez da nahiko. PNVk ziur nago ez dakala. Ez dago eztabaidarik zelako Blbo nahi dugun. Horretarako ajente sozialak eta ekonomikoak behar dira. Ez dago beste erremediorik. Iraultza bat izango balitz eta boterea herriaren eskutan balego...? Baina gaur egun, eta kapitalismo baten mendean sartuta egonez gero, ez dago dauden indarrak elkartzea besterik. Elkartu eta ikusi ze hiri nahi dugun. Erreformistek ez dute hori egingo. Erreformistak beti egongo dira banka baten alde, promotore batzuren alde edo interes kapitalista batzuren alde. Hauxe da gure mensajearen funtsa. Aipatzen dugunean partizipazioa, deszentralizazioa, Udaletxearen autonomia ekonomikoa eta politikoa... hori esan nahi da funtsean. Ze bakoitza bere aldetik badoa, Renfe, Metroa, Gobernu... marjinazioa beti joango da handitzen eta gero eta hiritar gehiago izango da «bigarren mailakoa».

GALDERA: Nola ikusten du jende xeheak Udaletxea?

ERANTZUNA: Begira, frankismoak moztu egin zuen erabat aurretik zegoen langile mugimendu guztia. Aurretik bazegoen zerbait "estado del bienestar" horren alde egiteko. Frankismoak guzti hori moztu zuen. Oraindik ere toki berean gaude. Zer egin du PNVK? Zer egin du PSOEk? Moztu egin dituzte on-izate hori zuzentzeko bideak? Zergatik? Neoliberalismo baten ildotik dabiltzalako. Gaur egun ez da gainditu Udaletxearekiko mesfidantza. Amigismoak eta funtzionatzen du oraindik. Ez da lortu herriarengandik hurbilen dagoen instituzioa hori izatea herriaren erakunde bat. Ez da lortu. Ez eta pentsatu ere!

Udaletxeko sarreran aguazilak jartzeaz gain telebista zirkuito itxi bat jarri dute. Gutxi balira bezala sistema bat asmatu dute botoi bati kalkatu eta ate denak ixteko eta jolean gasa botatzeko.

IÑAKI URIARTE. IÑAKI URIA

35-39

GaiezPolitikaEuskal HerrErakundeakUdalak
GaiezPolitikaEuskal HerrTaldeakAlderdiakHB
PertsonaiazBARANDIKA1
EgileezURIA3Politika
EgileezURIARTE2Politika